



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

93b4a21bec04fbc229ddd347cc2fecb789241632a4c8f6fbc0474a2858e10bdf

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

UDALBATZA BERRIA ERATZEKO OSOKO BILKURA BEREZIA

2023.06.17

Tolosako udaletxean, 2023ko ekainaren 17an, goizeko hamaiketan, kargua utzi behar duen alkate-lehendakariak deituta, maiatzaren hogeita zortziko hauteskundeetan hautatuak izan ziren zinegotziak lehen deialdian elkartu dira Osoko Bilkura Berezia eginez Udalbatza berria eratzeko eta alkatea aukeratzeko.

Bertaratutako zinegotziak:

Angel Martinez de Rituerto Arregui
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia
Ander Figuerido Zubiria
Josune Sanz Vidal
Aitor Agirresarobe Murgi
Kristina Pelaez Errazkin
Aitzol Garcia Azurmendi
Garbiñe Marzol Ormazabal

Xarles Iturbe Pasaban
Biotxa Agirre Ugalde
Leire Zubeldia Ugalde
Xabier Balerdi Tolosa
Ainhoa Dominguez Landa
Patxi Amantegi Zubiria
Iker Uson Gonzalez
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Adin-mahaia osatzea.
2. Hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea.
3. Zinegotziek kargua hartzea.



4. Udalbatza eratutzat jotzea.
5. Ondare-inbentarioaren eta kontaketa-aktaren kontu ematea.
6. Alkatea hautatzea.
7. Alkateak kargua hartzea.

Batzarrari hasiera eman zaio honako gai hauek aztertzeko:

1. ADIN-MAHAIA OSATZEA

Lehenik, idazkariak hauteskundeetan zinegotzi hautatu dituztenei deitu die, eserlekuetan jartzeko.

Ondoren, etorritakoei adierazi die bilkuraren helburuak Udalbatza berria eratzea eta alkatea hautatzea direla, guztia Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195. artikuluan xedaturikoa betez. Honako hau dio artikulua horrek:

- «Udal korporazioak, hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean eratuko dira.
- Bilkura honen xedeak dira Korporazioa eratzea eta alkate-lehendakaria aukeratzea.
- Xede horietarako, bertaratu diren hautetsi zaharrenak eta gazteenak osatuko dute Adineko Mahaia».

Bilkurari hasiera emanda, Adin-mahaia osatu dute: Jose M^a Villanueva Telleria jauna, 62 urtekoa, zaharrena, mahaiburu; eta Aitor Agirresarobe Murgi jauna, 29 urtekoa, gazteena. Idazkari jardun du bilkurakoak berak, Begoña Garmendia Vazquezek (idazkariak), eta adierazi du bilkura Jose M^a Villanueva Telleria jaunak zuzenduko duela.

2. HAUTETSIEN KREDENTZIALAK ETA NORTASUNA EGIAZTATZEA

Lehenik, idazkariak adierazi du, indarreko legeriari jarraikiz, zinegotzi hautetsi guztiek aitortu dituztela bateraezintasun-arrazoia izan daitezkeenak eta ondasun eta jarduerak.



Ondoren, idazkariak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egindako kredentzialak irakurri ditu, banan-banan, eta zinegotzi bakoitza identifikatu du, **kredentziala eta nortasun-agiria alderatuz, eta zinegotzien kredentzialak** entregatu dizkio Adin-mahaiko lehendakariari.

Adin-mahaiko lehendakariak egiaztatu ditu bertaratu diren korporatiboen kredentzialak, eta idazkariak egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena bilkuran parte hartzen ari diren hautetsi guztiek ondasunei eta jardueri buruzko aitortpenak egin dituztela.

3. ZINEGOTZIEN KARGUA HARTZEA

*Udal idazkariak zinpeko aitortpenari ekin dio eta, banan-banan, hautetsi bakoitzari **707/1979 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, xedaturiko formularen arabera,** galdera egin die:

«Zin egiten al duzu edo hitz ematen al duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zinegotzi-karguaren betebeharrak zintzotasunez eta Erregearekiko leialtasunez beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren oinarritzko arau gisa gorde eta betearaziko duzula?»

Hauek izan dira erantzunak:

- Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH Bildu): «Bai, legearen indarrez zin egiten dut, baina batez ere herritarren aurrean zin egiten dut, eta jendarte berdinzaleagoa, jasangarriagoa eta justuagoaren alde lana egiteko konpromisoa hartzen dut».
- Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte (EH Bildu): «Bai, tolosarrei esker onez eta legeak hala aginduta, hitz ematen dut Tolosa justuago bat lortzeko bidean lan egingo dudala».
- Goiuri Ezeiza Arandia (EH Bildu): «Bai, ilusioz, errespetuz eta gardentasunez gogotsu egingo dut lan Tolosa feminista, berdinzale eta sortzaile baten alde. Tolosarron babesaz baliatuz, legeak hala aginduta, hitz ematen dut».
- Ander Figuerido Zubiria (EH Bildu): «Orain lau urte esan bezala tolosarren babesa eskertuz eta baliatuz, errespetuz eta begirunez, herritarrekin eta herritarrentzat gogoz eta zintzoki lan egin, eta tolosar guztien ongizatea eta eskubide berdintasuna zein Euskal Errepublikan helburu, legeak hala behartuta hitz ematen dut».



- Miren Josune Sanz Vidal (EH Bildu): «Alde batetik, tolosarrei, emandako babesarengatik, eskerrak emanez, zin egiten dut, legeak horrela aginduta zintzo eta gogoz lan egingo dudala herri berdinzale, feminista eta jasangarriago bat lortzeko bidean».
- Aitor Agirresarobe Murgi (EH Bildu): «Eskainitako aukera hartuz, zin egiten dut, legeak hala behartuta, umiltasunez, zintzotasunez, erantzukizunez eta herritarrekin batera herri honen alde lan egingo dudala fin zin egiten dut».
- Cristina Pelaez Errazquin (EH Bildu): «Bai, legearen indarrez egiten dut zin, eta herritar guztien duintasuna, berdintasuna eta burujabetza ekarriko digun Euskal Herri errepublikarren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dut».
- Aitzol Luis Garcia Azurmendi (EH Bildu): «Bai legeak hala behartuta hitza ematen dut. Eta lanean arituko naiz Euskal Herri errepublika feminista, euskaltzale eta berdinzaleago bat lortzeko bidean».
- Garbiñe Marzol Ormazabal (EH Bildu): «Orain dela lau urte esandakoa berresten dut. Lehenik, eskerrak tolosar guztiei eta, legeak hala behartuta, hitz ematen dut lanean jarraituko dudala Tolosa euskaltzale, eraikitzaile eta berdinzaleago bat lortzeko bidean. Maite duzun Tolosa egingo dugu».
- Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE): «Indarrean dauden Konstituzio eta Autonomi Estatutuak errespetatuz eta azken 45 urteetan Tolosak izan dituen alkate eta zinegotziak gogoratzuz, bereziki Juan Mari Jauregi jaunaren izena aipatuz, zin egiten dut».
- Xarles Iturbe Pasaban (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».
- Miren Biotxa Aguirre Ugalde (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».
- Maria Leire Zubeldia Rezola (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».
- Xabier Balerdi Tolosa: «Bai, legeak halaxe aginduta».
- Ainhoa Dominguez Landa (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».
- Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».
- Iker Uson Gonzalez (EAJ/PNV): «Bai, legeak aginduta».



Ondoren, Legeak agintzen dituen baldintza guztiak beterik, zinegotzi hautatuei karguaren jabetza eman die Adineko Mahaiko lehendakariak.

4. UDALBATZA ERATUTZAT JOTZEA

Zinegotziek haien karguaren jabetza hartu ondoren, Adin-mahaiaren lehendakariak eratutzat jo du Tolosako Udaleko Udalbatza, eta honako hauek osatzen dute:

Angel Martinez de Rituerto Arregui	EH BILDU
Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte	EH BILDU
Goiuri Ezeiza Arandia	EH BILDU
Ander Figuerido Zubiria	EH BILDU
Miren Josune Sanz Vidal	EH BILDU
Aitor Agirresarobe Murgi	EH BILDU
Cristina Pelaez Errazquin	EH BILDU
Aitzol Luis Garcia Azurmendi	EH BILDU
Garbiñe Marzol Ormazabal	EH BILDU
Xarles Iturbe Pasaban	EAJ-PNV
Miren Biotxa Aguirre Ugalde	EAJ-PNV
Maria Leire Zubeldia Rezola	EAJ-PNV
Xabier Balerdi Tolosa	EAJ-PNV
Ainhoa Dominguez Landa	EAJ-PNV
Jose Francisco Amantegi Zubiria	EAJ-PNV
Iker Uson Gonzalez	EAJ-PNV
Jose M ^a Villanueva Telleria	PSE-EE (PSOE)

Jarraian, Mahaiko lehendakariak dominak eta intsigniak eman dizkie zinegotzi berriei.

5. ONDARE-INBENTARIOAREN ETA KONTAKETA-AKTAREN KONTU EMATEA.

Udal-idazkariak Adin-mahaiaren lehendakariari hitza hartu dio eta, Tolosako ondasun eta eskubideen erroldaren berri eman dio eratu den Udalbatza berriari, eta adierazi die haien esku jartzen dela dagokion aktaren bitartez.

Ondoren, udal kontu-hartzaileari eman dio hitza, Tolosako Udaleko Ondare Inbentarioaren eta Kontaketa Aktaren berri eman diezaion Udalbatza berriari.



Ondoren, Adin-mahaiaren lehendakariak hasiera eman dio alkate-lehendakaria hautatzeko jardunbideari, udal-idazkariari hitza emanez.

6.- ALKATE-LEHENDAKARIAREN HAUTAKETA.

Udal-idazkariak Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 196. artikuluan xedaturikoa azaldu du:

- «Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.
- Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdiesten baditu, zuzenean izendatua izango da.
- Azkenik, horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehiengo osoaren botoak, orduan, herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburua izango da Alkate».

Ondoren, Adin-mahaiko lehendakariak bozketaren hasiera iragarri du:

Zinegotzi zerrendaburu hauek izango dira alkategai, PSE-EEren zerrendaburuak uko ekin baitio alkategai izateari.

- Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, EH BILDUren zerrendaburua.
- Xarles Iturbe Pasaban, EAJ-PNVren zerrendaburua.

Idazkariak banan-banan zinegotziei deitu, eta ahoz bozkatu ondoren, botoen zenbaketa egin da eta emaitza honako hau izan da:

- Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui 9 boto.
- Xarles Iturbe Pasabanek 7 boto.

Beraz, EH BILDUko ordezkari Angel Martinez de Rituerto aldarrikatu da alkate-lehendakari, berak lortu baitu gehiengo absolutua alkategaien artean.



7.- ALKATEAREN KARGUA HARTZEA

Udal idazkariak galdera hau egin dio alkate izateko hautatua izan den Angel Martinez de Rituerto Arregui jaunari:

«Zin egiten al duzu edo hitz ematen al duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, alkate karguaren betebeharrak zintzotasunez eta Erregearekiko leialtasunez beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren oinarritzko arau gisa gorde eta betearaziko duzula?»

«Bai, legeak hala behartuta» erantzun ondoren, Adin-mahaiko lehendakariak, aginte makila emanez, karguaren jabetza eman dio, hitz hauek esanez:

«Angel Martinez de Rituerto Arregui jauna Tolosako alkate izendatua izan dela adierazten dut. Orain, Andu, Tolosako herriaren izenean zorionak eta zorte handia izan dezazula».

Ondoren, alkateak, Angel Martinez de Rituerto Arreguik, hitza hartu du:

«Bizitzak batzuetan espero ez ditugun egoeren aurrean jartzen gaitu.

Orain dela bost urte ez nuke inolaz ere pentsatuko gaur hemen egon nintekeenik, baina esan bezala, zaila da aurreikusten bizitzaren bihurtunetan zerekin egingo dugun topo.

Tolosar askoren babesa izan ondoren, apaltasun osoz eta erantzukizun handiz jasotzen dut Tolosako aginte makila.

Ohore handia da Tolosako alkatea izatea eta zin dagizuet gogotik eta ilusioz, zintzo eta gardentasun osoz egingo dudala, egingo dugula lana.

Tolosari diodan maitasunetik nire hoberena emango dut.

Betidunik izan ditut kezka sozialak eta ekologikoak, eta beti saiatu naiz, nire aukeren baitan eta nire mugez jakitun, nire ingurukoak zaintzen eta beren bizitzak hobexekoagok egiten.

Orain, beste maila batean bada ere, horretan saiatuko naiz.

Herritar guzti-guztien bizitzak hobek izan daitezen neurriak hartuko ditugu eta tolosar orok bizitza duina aurrera eramateko oinarritzko beharrak aseta izan ditzan buru belarri jardungo gara.

Niri tokatuko zait hartutako erabakietan azken sinadura jartzea, baina ni katearen azken katebegia besterik ez naiz izango.

Denon partehartzea nahi eta behar dugu. Behetik gora eta elkarrekin egin beharreko bidea da hau, hautetsiok, teknikariak, eragileak zein herritar ororen partehartzea bermatu nahi dugu.

Udaletxearen ateak zein nire bulegokoak herritar ororentzat irekiak egongo dira beti.

Hitza izango da gure lanabesa eta sortuko diren gatazketan, zentzuz, lasaitasunez eta elkarri zor diogun errespetuz jokatu dugu.

Hala ere, hautetsiok protagonismo berezia izango dugu Tolosaren kudeaketan. Nik Udalbatza hau osatzen dugun guztion borondate onean sinesten dut eta ziur naiz, bakoitzak bere tokitik, herriarentzat hoberena bilatuko dugula.



TOLOSAKO
UDALA

2023IPLE0009

Bide hori, esan bezala, denok errespetuz eta elkarlanean egin dezagun da nire desioa. Gobernuan egongo ez zareten hautetsien proposamenak eta kritikak herri hobea egiten lagunduko digute, zalantzarik gabe.

Indibidualismoa gailentzen ari den garai hauetan komunitate izaera eta solidaritatea indartu nahi dugu.

Tolosa halakoxea da, komunitate izaera sendoa duen herria, ekintzailea eta solidarioa, baina mundu global honetan haizeak kontrako norabidean jotzen du, eta guk, berezkoa dugun izaera hori indartu behar dugu.

Elkarri babesa eman eta inor atzean uzten ez duen herria izan nahi dugu.

Gure aurretik izan diren Tolosako alkate zein hautetsi guztiei nire begirunea azaldu nahi nieke eta amaitu berri dugun legealdiko korporazioko zinegotziei zein alkateari herriaren alde eginiko lana eskertu nahi dizuet.

Bukatzeko, etxekoei ere eskerrak eman nahi dizkizuet, beti hor zaudetelako eta nire euskarririk tinkoena zaretelako.

Gora Tolosa eta gora Herria! Mila esker!»

Besterik gabe, eguerdiko hamabietan, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEAK
O.E.

IDAZKARIAK



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IPLE0009-2023-06-17 Udalbatza eratzeko plenoa/2023-06-17 Udalbatza